



MEDIKUNTZA  
ETA ERIZAINNTZA  
FAKULTATEA  
FACULTAD DE  
MEDICINA  
Y ENFERMERÍA

Master Amaierako Lanaren  
prestaketa eta  
defentsarako gida

**Masterreko Batzorde Akademikoa**

Farmakologia. Medikamenduen Garapena, Balioespena

eta Erabilera Arrazionala Masterra

2026-2027 ikasturtea

Master Amaierako Lana (MAL) jarduera akademiko bat da, izaera indibidualekoa, eta 15 ECTS kredituetako arduraldi-karga du. Ikasle bakoitzak banaka egingo duen jatorrizko ikerketa-lana da, zuzendari baten edo batzuen gainbegiratzepean, eta bertan Masterreko irakaskuntza-aldian jasotako edukiak, baita eskuratutako gaitasun, konpetentzia eta trebetasunak ere, integratu eta garatu behar dira.

## 1. Ikaskuntzako helburu espezifikoak

“Farmakologia. Medikamenduen Garapena, Balioespena eta Erabilera Arrazionala” Masterreko MALaren helburu espezifikoa da ikasle bakoitzak, tutoretzapean, Farmakologiari, Farmazia Teknologiari, Biofarmaziari eta Farmakozinetikari, baita Sendagaien Erabilera Arrazoizkoari lotutako edozein gairi buruzko jatorrizko ikerketa-lan bat egitea eta defendatzea.

MALaren amaieran, ikasleek honako hauek egin beharko dituzte:

- Masterreko titulazioaren arloren batekin lotutako ikerketa-proiektu bat prestatzeari buruzko ezagutza orokorrak eskuratu izana.
- Ikerketa-proiektu bat defendatu izana, idatzizko eta ahozko aurkezpen baten ondoren.

## 2. Matrikulazioa eta deialdeak

Matrikula Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak ikasturtean zehar ezarritako matrikulazio-eparean barruan egingo da. Matrikulak ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizial izateko eskubidea emango du (ekaina eta iraila). Ikasleek adierazi beharko dute zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duten MALa (gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez). Halaber, ezarritako deialdietan lana defendatu ez duten edo gairiditu ez duten ikasleek berriro matrikulatu beharko dute hurrengo ikasturtean.

2026-2027 ikasturterako, MALa entregatzeko eta defendatzeko datak honako hauek izango dira:

	Entrega-data mugak	Ahozko defentsa
1. deialdia	2027ko ekainaren 4a	2027ko ekainaren 18a
2. deialdia	2027ko irailaren 3a	2027ko irailaren 17a

### 3. Lanaren zuzendaritza, esleipena eta gaiaren aukeraketa

MALa masterrean parte hartzen duen ikerketa-taldetako batean egingo da, edo kanpoko ikerketa-erakunde batean (beste unibertsitate-sailak, ikerketa/teknologia-zentroak edo hitzarmena duten edo egin daitekeen enpresak).

Gaia aukeratzea errazteko, ikasturtearen hasieran, ikasturte horretarako MALaren eskaintzen zerrenda argitaratuko da. Bertan, laburpen bat eta ikerketa-lana proposatzen duten pertsonen harremanetarako datuak agertuko dira; pertsona horiek arduratuko dira hautaketa-prozesuaz, hautagai bat baino gehiago aurkezten bada.

Ikasleek proposatutako gaien artean aukeratu ahal izango dute, edo bestela MALerako gaia proposatu ahal izango dute. Azken kasu horretan, Batzorde Akademikoak tutore bat esleituko dio, proposatutako gaiarekin bat datozen ezagutzak izango dituen, lana gainbegiratu eta zuzentzeko arduraduna izan dadin.

Behin gai orokorra eta ikerketa-lerroa aukeratuta, eta zuzendaritzaren eta ikaslearen arteko lankidetzaren adostuta, bi aldeek, adostasunez, gaiaren definizio zehatza egingo dute, ikaslearen interesak Masterreko prestakuntza-jardueraren barruan garatu ahal izateko. Adostasun hori **1. eranskinean ("MALaren proposamena")** jasoko da; bertan, oinarrizko datu akademiko eta pertsonalak, idazketa-hizkuntza, lanaren behin-behineko izenburua, helburuak, hipotesiak eta aurreikusitako metodoa bilduko dira.

Ikasleak dokumentu hori, behar bezala sinatuta, Masterreko Batzorde Akademikoaren arduradunari bidaliko dio, Teresa Morera doktoreari ([teresa.morera@ehu.eus](mailto:teresa.morera@ehu.eus)), horretarako zehazten diren datetan. Halaber, ikasleak lana **GAUR / Gradua Amaierako Proiektuak – Master Amaierako Lana** atalean erregistratuko du; ondoren, irakasleak posta elektronikoki jasoko du eta proposamena GAURen onartu beharko du. Onarpen hori ezinbestekoa da akordioa behar bezala erregistratzeko. Lana aldi baterako desagertuko da zuzendarien GAUR gunetik, zentroak balioztatu arte; ikasleen gunean, berriz, "baliozkotzeko zain" egoeran agertuko da.

MALa Masterrean MALak zuzentzeko gaituta dauden irakasle doktoreek zuzenduko dute. Irakaslea arduratuko da ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azaltzeaz, haren garapenean gidatzeaz eta ezarritako helburuak betetzen direla zaintzeaz, baita jarraipena egiteaz eta defentsa baino lehen idatzizko txosten bat prestatzeaz ere; txosten hori ikasleari jakinaraziko zaio.

Doktore ez diren irakasleek MALa kodirigitu ahal izango dute irakasle doktore batekin batera. Irakasleak MALa osorik edo hein batean praktikaldien hitzarmen baten esparruan, edo UPV/EHUtik kanpoko beste erakunde edo instituzio batzuetan garatzen badu, lana unibertsitatez kanpoko langileek zuzendu ahal izango dute, betiere doktore titulua badute eta MALa zuzentzeko gai diren irakasleen zerrendan sartuta badaude.

MALa gehienez bi pertsonak zuzendu ahal izango dute.

#### 4. MALa egiteko arauak

MALak derrigorrez ezarritako formatuan aurkeztu beharko dira, eta jarraian zehazten diren egitura-, estilo- eta idazketa-arauak bete beharko dituzte:

##### 4.1. Estiloa eta idazketa

Gehienezko luzera 50 orrialdekoa izango da, azala, aurkibidea, laburpena eta eranskinak kontuan hartu gabe. Orrialdeak bi aldeetatik idatziko dira.

Orrien zenbakia beheko eskuineko aldean jarriko da, eta zenbaketa Sarreratik (Introdukziotik) hasiko da. Aurreko orrialdeak (aurkibidea, laburpena, etab.) zenbaki erromatarrekin zenbatuko dira.

Times New Roman letra-tipoa erabiliko da, 12 puntuko tamainan edo antzekoa (taula eta irudien azalpenetan izan ezik; horietan Arial, 10 puntukoa erabiliko da). Testua justifikatuta egongo da, 1,5eko lerroartearekin eta 2,5 cm-ko marjinekin alde guztietan.

Taulak eta irudiak testuan txertatuko dira, eta dagokien izenburua edo azalpena izan beharko dute (taulen kasuan goialdean, eta irudien kasuan behealdean), zenbaki jarraituen arabera, eranskinak bezala. Eranskinak dokumentuaren amaieran kokatuko dira.

Kapitulu eta atalen egiturarako hamartar kodeketa erabiliko da:

- Kapituluaren izenburuak (zifra 1eko kodea) ezker marjinetik hasita idatziko dira, maiuskulaz, lodiz eta 14 puntuko letrarekin.
- Atalen izenburuak (2 digituko kodea) ezker marjinetik hasita idatziko dira, maiuskulaz, lodiz eta 12 puntuko letrarekin.
- 3 digituko atalen izenburuak ezker marjinetik hasita idatziko dira, minuskulaz, lodiz eta 12 puntuko letrarekin.
- Gainerako izenburuak ezker marjinetik hasita idatziko dira, minuskulaz eta 12 puntuko letrarekin.

Adibidea:

## **1. INTRODUCCIÓN**

### **1.1. DIABETES MELLITUS**

#### **1.1.1. Tratamiento farmacológico**

##### **1.1.1.1. Insulina**

Erreferentzia bibliografikoetarako, "Vancouver" sistema edo "APA" sistema erabil daiteke; horretarako, kontuan hartu behar da lanean jasotzen diren erreferentzia guztiek estilo bera jarraitu behar dutela, sistema bat edo bestea aukeratuta eta guztiei aplikatuta. Erreferentzien zerrenda orden alfabetikoan egingo da, lehen egilea kontuan hartuta.

#### 4.2. Egitura

- Azala (fakultateko logotipoa, izenburua, egilea, zuzendarien izenak, titulazioa, ikasturtea)
- Zuzendarien onespina, lana defendatzeko baimena emanaz (**2. eranskinen** ezarritako ereduaren arabera)
- Aurkibidea
- Laburpena (gehienez 250 hitz) eta gako-hitzak (gehienez 5)
- Sarrera, egindako lanaren aurrekariak eta justifikazioa barne
- Hipotesia eta helburuak
- Materiala eta metodoak
- Emaizak, taulak eta irudiak barne
- Eztabaida
- Ondorioak
- Bibliografia
- Eranskinak (badaude)

#### 5. **MALaren aurkezpena eta defentsa**

MALean matrikulatutako ikasle guztiek ADDItik mezu bat jasoko dute, epea irekitzen denean MALa igotzeko duten sarbidearekin. Defentsa eskatzeko bi urrats bete behar dira:

- 5.1. Defentsa-eskaera GAURen: MALaren defentsa GAURen eskatu beharko da, "*Gradu Amaierako Proiektuak – Master Amaierako Lanak – Esleipenak*" atalean, ezarritako epean.
- 5.2. Lana ADDIra igotzea: MALa PDF formatuan igo beharko da. Gordailutu ondoren, ADDItik mezu elektronikoko bat jasoko da. Honako dokumentu hauek bereizita erantsi beharko dira, behar bezala sinatuta (kontuz: "fitxategia igo eta beste bat gehitu" aukeran klik egin behar da; "hurrengoa" sakatzuz gero, ez da fitxategi gehiago eransteko aukerarik izango — ikus ADDI eskuliburua):
  - Memoria publiko egiteko baimena: UPV/EHUko gordailu instituzionalean argitaratzeko baimena (pdf, 693 Kb)
  - Ikasleen eta irakasleen arteko jabetza intelektual partekatzeko akordioa (aukerakoa): jabetza intelektual partekatuaren adierazpena (docx, 44 Kb)
  - Dagokion Etika Batzordearen baimen-agiria, beharrezkoa denean. Dokumentu hau aurkeztu ezean, ezin izango da MALaren defentsa egin.

MALaren zuzendaritzaren baliozkotze

MALaren zuzendaritza UPV/EHUko langileena bada, defentsa onartu eta txostena GAURera igo beharko dute. Zuzendaritza UPV/EHUkoa ez bada, zuzendariak azken txostena [postgrados.fme@ehu.eus](mailto:postgrados.fme@ehu.eus) helbidera bidaliko dute, eta handik dagokion epaimahaiko idazkariari helaraziko zaio.

\* Gainera, pdf formatuan dagoen idatzizko lana, 2. atalean zehaztutako epea baino lehen, posta elektronikoz bidali beharko zaio masterreko arduradunari ([teresa.morera@ehu.eus](mailto:teresa.morera@ehu.eus) . Lanarekin batera, ikerketa-lanaren zuzendariak ebaluazio-txosten konfidentzial bat bidaliko diote masterreko batzorde akademikoari ([teresa.morera@ehu.eus](mailto:teresa.morera@ehu.eus) , **3. eranskin**ean ezarritakoari jarraituz.

Ezarritako epe bakoitzean defentsa eskatu duten ikasleen kopurua ezagutu ondoren, Batzorde Akademikoak Ebaluazio Epaimahaiak izendatuko ditu, eta defentsaren eguna, ordua eta lekua zehaztuko ditu. Ebaluazio Epaimahaia hiru kidek osatuko dute, guztiak doktoreak eta MALak zuzentzeko gai diren irakasleen zerrendakoak. Defentsa presentzialki egingo da. Salbuespenez, eta behar bezala justifikatuta badago, MALaren defentsa bideokonferentzia bidez egin ahal izango da, Batzorde Akademikoaren aurretiazko baimenarekin.

Aurkezpena eta defentsa gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez egin ahal izango dira; hizkuntza horietan gaitutako epaimahaiak osatuko dira.

Ahozko defentsa ekitaldi publikoa izango da, eta gehienez 30 minutuko iraupena izango du (galderak barne), honela banatuta:

- Ikaslea: gehienez 20 minutuko ahozko azalpena egindako lanari buruz. Ohiko baliabide ikus-entzunezkoak erabili ahal izango ditu.
- Ebaluazio Epaimahaia: gehienez 10 minutuko esku-hartzea, egokitzat jotzen dituzten alderdiei buruzko azalpenak eta argipenak eskatzeko.

## 6. MALaren ebaluazioa eta kalifikazioa

Proposatutako ebaluazio-errubrikek ikasleei lagunduko diete idatzizko lana eta ahozko aurkezpena prestatzen, eta zuzendariari eta/edo epaimahaikideei probak ebaluatzen.

Eskuratutako gaitasunak eta ahalmenak ebaluatzeko, epaimahaiak **4. eranskin**eko errubrikan jasotakoa hartuko du kontuan, ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera. Epaimahaiko kide bakoitzak ebaluazio indibidualizatua egingo du, eta ondoren azken nota hiru kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da.

Ikaslearen aurkezpena egin ondoren, eta zuzendarien txostena ikusita, epaimahaiak azken kalifikazioa erabakiko du honako sistemaren arabera:



- Idatzizko memoria: %40 ( %20 zuzendarien txostena + %20 epaimahaia)
- Ahozko aurkezpena eta defentsa: %40 (epaimahaia)
- Ikaslearen jardura MALean: %20 (zuzendarien txostena)

Edonola ere, atal bakoitzean gutxienez %50 lortu beharko da gainditzeko. Ebaluazioa Kalifikazio Aktan (**5. eranskina**) jasoko da, eta Ebaluazio Epaimahaiko hiru kideek sinatuko dute. Lehendakariak akta hori, errubrikarekin batera, Masterreko Idazkaritzan entregatuko du.

MALa ez bada ezarritako epeetan defendatzen, kalifikazioa UKOA (RENUNCIA) izango da.

Kalifikazioa "Gutxiegi" (Suspenso) bada, epaimahaiak txosten bat bidaliko dio ikasleari, lana hobetzeko eta berriro ebaluatzeko gomendioekin. Txostenaren kopia zuzendariari ere bidaliko zaio.

"Ohorezko matrikula" aitortza zentroak eman ahal izango du defentsa-aldi bakoitzaren amaieran, MALaren defentsan kalifikazio onenak lortu dituzten ikasleen %5era gehienez, betiere 9,0 edo gehiagoko nota badute eta Batzorde Akademikoak hala erabakitzen badu.

UPV/EHUko etika akademikoari eta jardura desegokiak edo iruzurrezkoak prebenitzeko protokoloaren 4.3 atalari jarraitu:

- Plagio zantzuak badaude, edo bibliografian beste egileak behar bezala aipatzerakoan zorrotza izan ez bada, zuzendariak ikasleari jakinarazi beharko dio, lana aurkeztu aurretik akatsak zuzen ditzan.
- Plagioa MALaren aurkezpen-fasean atzemanen gero, epaimahaiak lana 0,0 (gutxiegi) kalifikazioarekin ebaluatuko du.

Azken kalifikazioen berrikuspena edo erreklamazioa Unibertsitateko ebaluazio-araudiaren arabera egingo da. Hala ere, epaimahaia denez, lehen berrikuspena epaimahai berak egingo du, eta hurrengo instantzian Masterreko Batzorde Akademikoak ebatziko du. Bere erabakia gora jotzeko errekurtsoren bidez errektorearen aurrean aurkeztu ahal izango da.



## 1. ERANSKINA. Master Amaierako Lanaren proposamena

**Ikaslearen izen-abizenak:**

**Ikerketa-lerroa:**

**Lana zuzenduko duten irakasleak:**

**Izenburua:**

**Helburuak:**

**Metodoak:**

**Lekua eta data:**

Ikaslearean sinadura

Zuzendarien sinadura

Zuzendarikidearen sinadura

MASTERREKO BATZORDE AKADEMIKOARI BIDALI  
[teresa.morera@ehu.eus](mailto:teresa.morera@ehu.eus)



## 2. ERANSKINA. Masterraren amaierako lana aurkezteko baimena

Dr./a(k) \_\_\_\_\_,

Master Amaierako Lanaren zuzendari gisa, honako izenburua duen  
lanarena \_\_\_\_\_

ZIURTATZEN DU(TE) aipatutako ikerketa-lana honako toki honetan egin  
dela: \_\_\_\_\_

Farmakologia. Medikamenduen Garapena, Balioespena eta Erabilera Arrazionala Masterrean, eta  
honako ikasleak egina dela:

\_\_\_\_\_

jarduera honetan aitortutako 15 ECTS kredituak betetzeko helburuarekin. Hori dela eta,  
BAIMENA EMATEN DU(TE) lana aurkezteko, defentsarako beharrezko baldintzak betetzen dituela  
iritzita.

\_\_\_\_\_ -n, 20\_\_ ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ ean

MASTER AMAIERAKO LANAREN ZUZENDARIA

Sinadura: \_\_\_\_\_



3. ERANSKINA (I). Master Amaierako Lanaren ebaluaziorako errubrika eta irizpideak  
(zuzendaria(k))

<b>Zuzendaria:</b> (Izena)					
<b>Zuzendarikidea:</b> (Izena)					
<b>Ikaslea:</b> (Izena)					
<b>MALaren izenburua:</b>					
<b>Deialdia:</b>	<input type="checkbox"/>	<b>Ohikoa</b>	<input type="checkbox"/>	<b>Ezohikoa</b>	
		Ikaslearen jarduera MALean (20 p.)		MALaren memoria (20 p.)	
<b>Ítem</b>	<b>Erantzukizuna</b>	<b>Ekimena eta autonomia</b>	<b>Ikaskuntza-aurrerapena</b>	<b>Edukia</b>	<b>Alderdi formalak</b>
<b>Gehieneko puntuazioa</b>	10 p.	5 p.	5 p.	15 p.	5 p.
<b>Puntuazioa</b>					
<b>Azken kalifikazioa</b>					
<b>Ohorrak</b>					

Data: \_\_\_\_\_

Sinadurak:

\_\_\_\_\_  
Zuzendaria

\_\_\_\_\_  
Zuzendarikidea

### 3. ERANSKINA (I). Master Amaierako Lanaren ebaluaziorako errubrika eta irizpideak (zuzendaria(k))

#### EBALUAZIORAKO IRIZPIDE ORIENTATIBOAK

##### 1. Ikaslearen jarduera MALean (20 puntu)

###### 1.1. Erantzukizuna (10 puntu))

0-5	5-7	8-10	Kalif.
Lanean planteatutako helburuak garatzeko ez da nahikoa izan	Lanean planteatutako helburuak garatzeko nahikoa izan da	Lanean planteatutako helburuak garatzeko bikaina izan da	

###### 1.2. Ekimena eta autonomia (5 puntu)

0-5	5-7	8-10	Kalif.
Informazioa bilatzeko eta bere zuzendariak proposatutakoaz harago ideiak aurkezteko ekimen eta autonomia gutxi erakutsi du	Batzuetan bere zuzendariaren laguntza behar izan du informazioa bilatzeko eta ideiak proposatzeko	Autonomiaz lan egin du, informazioa bilatzeko eta ideiak proposatzeko ekimena erakutsiz	

###### 1.3. Ikaskuntzaaurrerapena (5 puntu)

0-5	5-7	8-10	Kalif.
Gaiari buruzko ezagutzak ez dira behar bezala aurreratu	Gaiari buruzko ezagutzak behar bezala aurreratu dira	Gaiari buruzko ezagutzak MALa hasi zuenean baino sakonagoak eta osoagoak dira	

##### 2. MALaren memoria (20 puntu)

###### 2.1. Edukia (15 puntu)

	0-5	5-7	8-10	Kalif.
Sarrera (2,8 p.)	Bibliografiaberrikuspena eta aurrekariak nahasiak eta ez oso egokiak dira	Bibliografiaberrikuspena eta aurrekariak nahikoak dira, baina hobetzeko modukoak	Bibliografiaberrikuspena eta aurrekariak oso ondo eginda daude	
Hipotesis/ Helburuak (1,5 p.)	Ez dira egokiak	Ongi zehaztuta daude, baina bibliografia berrikuspenak gutxi babesten ditu	Oso ongi zehaztuta daude eta bibliografia berrikuspenak oso ongi babesten ditu	
Materialak eta Metodoak (2,6 p.)	Metodologia eta materialak eskasak dira eta ez datoz bat aurkeztutako emaitzekin	Metodologia eta materialak deskribatzen dira, baina modu eskasean; informazioa falta da	Materialak eta metodoak zehaztasunez deskribatzen dira, baita datuen analisirako erabilitako teknika estatistikoak ere (dagokionean)	
Emaitzak (3 p.)	Irudiek eta/edo taulek ez dituzte emaitzak ondo jasotzen; ez dira argiak eta gaizki azalduta daude	Irudiek eta/edo taulek ez dituzte emaitzak ondo jasotzen; ez dira argiak eta gaizki azalduta daude	Irudiek eta/edo taulek ezin hobeto jasotzen dituzte emaitzak; argiak dira eta ondo azalduta daude	

Eztabaida (2,8 p.)	Eztabaida ez da egokia edo nahikoa ez da	Eztabaida egokia da	Eztabaida bikaina da	
Ondorioak (1,3 p.)	Ez da ondoriorik atera, edo okerrak dira, edo emaitzetatik haratago doaz	Ondorio gehienak zuzenak dira eta emaitzetan oinarritzen dira	Ondorio guztiak egokiak dira eta emaitzetan ezin hobeto oinarritzen dira	
Bibliografia (1 p.)	Ez da egokia edo oso eskasa da. Gaizki erreferentziatuta dago eta akats asko ditu.	Ondo erreferentziatuta dago, baina estiloakats batzuk ditu edo eskasa da.	Bolumen egokia du eta ondo erreferentziatuta dago (akats esanguratsurik gabe).	

## 2.2. Alderdi formalak (5 puntu)

	0-5	5-7	8-10	kalif.
Idazketa, gramatika, ortografia (2,5 p.)	Testua ulertzeko zaila da. Hiztegia eta puntuazioa ez dira egokiak. Ortografiaakatsak ditu.	Testua argia eta irakurtzeko erraza da, hiztegia egokia eta zientifikoa da, baina hobetzekoa. Puntuazio eta/edo gramatikaakats batzuk ditu.	Testua argia eta oso erraz irakurtzekoa da, hiztegi zuzena eta zientifikoa erabiltzen du. Puntuazioa egokia da.	
Edizioa: formatua, orrialdezenbake ta, azala, aurkibidea, laburdurak (2,5 p.)	Alderdi formal askotan eskasa.	Alderdi formalen batean eskasa; gainerakoan onargarria.	Alderdi formaletan kalitatezkoa.	



#### 4. ERANSKINA (I). Master Amaierako Lanaren ebaluaziorako errubrika eta irizpideak (epaimahaikideak)

<b>Zuzendaria:</b> (Izena)							
<b>Zuzendarikidea:</b> (Izena)							
<b>Ikaslea:</b> (Izena)							
<b>MALaren izenburua:</b>							
<b>Deialdia:</b>	<input type="checkbox"/>	<b>Ohikoa</b>	<input type="checkbox"/>	<b>Ezohikoa</b>			
	MALaren aurkezpena eta defentsa (40 p.)					MALaren memoria (20 p.)	
Ítem	Ahozko komunikazioa	Aurkezpenaren edukia	Aurkezpenaren iraupena	Ahozko aurkezpenaren euskarria	Lanaren defentsa	Edukia	Alderdi formalak
<b>Gehieneko puntuazioa</b>	8 p.	9 p.	4 p.	4 p.	15 p.	15 p.	5 p.
<b>Puntuazioa</b>							
<b>Azken kalifikazioa</b>							
<b>Ohorrak</b>							

Data: \_\_\_\_\_

Sinadurak:

\_\_\_\_\_

#### 4. ERANSKINA (I). Master Amaierako Lanaren ebaluaziorako errubrika eta irizpideak (epaimahaikideak)

##### EBALUAZIORAKO IRIZPIDE ORIENTATIBOAK

##### 1. MALaren aurkezpena eta defentsa (40 puntu)

	0-5	5-7	8-10	Calif.
Ahozko komunikazioa (8 p.)	Hizkera arrunta darabil, edo aurkezpena hitzez hitz irakurtzen du. Ez da inola ere entzuleengana zuzentzen	Hizkera akademikoa darabil, baina ez da oso argia; erritmorik gabe eta monotonoa. Ez du aurkezpena irakurtzen. Noizean behin entzuleengana zuzentzen da	Hizkera argia eta akademikoa darabil, erritmo eta tonu egokiekin; aurkezpena irakurri gabe. Une oro entzuleengana zuzentzen da	
Edukia (9 p.)	Egokia ez dena, desantolatua, eta ez du gaiaren ezagutza onik erakusten	Egokia eta ongi antolatua, baina ez du gaiaren nahikoa ezagutza erakusten	Egokia, oso ongi antolatua, eta gaiaren ezagutza ona erakusten du	
Aurkezpenaren iraupena (4 p.)	Ezarritako denboratik aldentzen da ( $\pm 7$ minutu)	Ezarritako denboratik aldentzen da (35 minutu)	Ezarritako denborara egokitzen da (20 minutu)	
Ahozko aurkezpenaren euskarria (4 p.)	Edizioa, letra-tamaina, testu kopurua (diapositiba bakoitzeko), kolorea, irudiak, animazioa, diapositiba kopurua			
	Eduki desegokia eta/edo edizioa ez da zuzena eskatzen diren parametroei dagokienez	Eduki egokia, baina ez dago ongi lotuta. Edizioa okerra da eta ez du erakargarritasun bisualik	Eduki egokia eta ongi lotua. Edizioa zuzena, ikusgarria eta estetikoki erakargarria da	
Lanaren defentsa (15 p.)	Ez die egoki erantzuten egindako galdera bati ere	Eginiko galdera batzuetako erantzunak zuzenak dira	Eginiko galdera guztiei zuzen erantzuten die	

##### 2. MALaren memoria (20 puntu)

##### 2.1. Edukia (15 puntu)

	0-5	5-7	8-10	Calif.
Sarrera (2,8 p.)	Bibliografiaberrikuspene eta aurrekariak nahasiak eta ez oso egokiak dira	Bibliografiaberrikuspene eta aurrekariak nahikoak dira, baina hobetzeko modukoak	Bibliografiaberrikuspene eta aurrekariak oso ondo eginda daude	
Hipotesis/Helburuak (1,5 p.)	Ez dira egokiak	Ongi zehaztuta daude, baina bibliografia berrikuspenak gutxi babesten ditu	Oso ongi zehaztuta daude eta bibliografia berrikuspenak oso ongi babesten ditu	

Materialak eta Metodoak (2,6 p.)	Metodologia eta materialak eskasak dira eta ez datoz bat aurkeztutako emaitzekin	Metodologia eta materialak deskribatzen dira, baina modu eskasean; informazioa falta da	Materialak eta metodoak zehaztasunez deskribatzen dira, baita datuen analisirako erabilitako teknika estatistikoak ere (dagokionean)	
Emaitzak (3 p.)	Irudiek eta/edo taulek ez dituzte emaitzak ondo jasotzen; ez dira argiak eta gaizki azalduta daude	Irudiek eta/edo taulek ez dituzte emaitzak ondo jasotzen; ez dira argiak eta gaizki azalduta daude	Irudiek eta/edo taulek ezin hobeto jasotzen dituzte emaitzak; argiak dira eta ondo azalduta daude	
Eztabaida (2,8 p.)	Eztabaida ez da egokia edo nahikoa ez da	Eztabaida egokia da	Eztabaida bikaina da	
Ondorioak (1,3 p.)	Ez da ondorioarik atera, edo okerrak dira, edo emaitzetatik haratago doaz	Ondorio gehienak zuzenak dira eta emaitzetan oinarritzen dira	Ondorio guztiak egokiak dira eta emaitzetan ezin hobeto oinarritzen dira	
Bibliografia (1 p.)	Ez da egokia edo oso eskasa da. Gaizki erreferentziatuta dago eta akats asko ditu.	Ondo erreferentziatuta dago, baina estiloakats batzuk ditu edo eskasa da.	Bolumen egokia du eta ondo erreferentziatuta dago (akats esanguratsurik gabe).	

## 2.2. Alderdi formalak (5 puntu)

	0-5	5-7	8-10	Calif.
Idazketa, gramatika, ortografia (2,5 p.)	Testua ulertzeko zaila da. Hiztegia eta puntuazioa ez dira egokiak. Ortografiaakatsak ditu.	Testua argia eta irakurtzeko erraza da, hiztegia egokia eta zientifikoa da, baina hobetzekoa. Puntuazio eta/edo gramatikaakats batzuk ditu.	Testua argia eta oso erraz irakurtzekoa da, hiztegi zuzena eta zientifikoa erabiltzen du. Puntuazioa egokia da.	
Edizioa: formatua, orrialdezenbake ta, azala, aurkibidea, laburdurak (2,5 p.)	Alderdi formal askotan eskasa.	Alderdi formalen batean eskasa; gainerakoan onargarria.	Alderdi formaletan kalitatezkoa.	



## 5. ERANSKINA. Master Amaierako Lanaren kalifikazioakta

<b>Zuzendaria:</b> (Izena)				
<b>Zuzendarikidea:</b> (Izena)				
<b>Ikaslea:</b> (Izena)				
<b>MALaren izenburua:</b>				
<b>Deialdia:</b>	<input type="checkbox"/>	<b>Ohikoa</b>	<input type="checkbox"/>	<b>Ezohikoa</b>

	MALaren aurkezpena eta defentsa (40 p.)	MALaren memoria (40 p.)		Ikaslearen jarduera (20 p.)
		Epaimahaia(20 p.)	Zuzendaria(k) (20 p.)	
<b>Puntuazioa</b>				
<b>Azken kalifikazioa (0-10)</b>				
<b>Ohorezko matrikularako hautagaia</b>	<input type="checkbox"/> BAI		<input type="checkbox"/> EZ	

Tokia eta data:

Sinadura:

\_\_\_\_\_  
Lehendakaria

\_\_\_\_\_  
Idazkaria

\_\_\_\_\_  
Bokala